



AJA: Antolakuntza eta Jarduera Araudia

Uzturpe Ikastolako Funtzionamendu Araudia

(azken errebisioa 2022ko iraila)

HH

2 urteko gela:

Ikastolako sartu-irteerak:

- Goiz Txokoa 7:30-9:00tara irekiko da eta haurrak goiko sarreratik sartuko dira.
- Harrera malgua (9:00-10:00). Beheko atetik sartzen dira.
- Irteera ordua: 11:45-12:00 malgutasuna. Gurasoak geletara datoz haurren bila.
- Siestakoak eta jangelakoak goiko atetik jasoko dituzte. (jangela: 13:00-13:30) eta (siesta: 14:30-16:30).
- Atea giltzaz itxiko da 10:00etan.

Zirkulazio libreko arauak:

- Zirkulazio librean, haurrak goiko espazioetan ibiliko dira.
- Gelan jolas librea egingo da.
- Beheko eskaileretako atea beti itxita mantenduko da.
- Etxeko oinetakoekin edo oinutsik ibil daitezke.
- **Erregistroa.** Asistentzia taulak, sarrera orduan egingo da, eta gela horretako ikasleren bat beranduago etorritz gero, momentu horretan gelan dagoen irakasleak erregistratuko du. Hilaren amaieran, idazkaritzara pasatzen dira %20eko abstentzioa duten ikasleen izenak eta arrazoiak. Asistentzia taulari argazkia aterako diogu eta gure zerbitzarian gordeko dugu.
- Espazio guztietan irakasle batek egon behar du.

Urtebetetzeak

- Bizkotxorik gabe ospatzen dugu. Haurra etortzen denean zoriondu eta ondoren abestu egingo zaio.
- Goxokirik ezin dute ekarri. Ekartzen badituzte etxera bidaliko dira bueltan.

Ikasleen garbitasuna

- Pixak-kaka alde egitea, arropa gela bakoitzean eta haur bakoitzaren saskietan.
- Zorriak, idatzia bidaltzen zaie gurasoei.
- Eskuen higieua mantendu.

Jostailuak

- Ez da komenigarria ekartzea, baina adin honetan batzuk beharrezkoa dute (transizio objektua). Horrelakoetan, saskian uzten saiatzen gara. Ezin bada, harrera momentuan uzten zaio eta aurrerago jasotzen du.

Jangela

- 12:00tan jangelako haurrak irakasleek jeisten dituzte.
- Jangelara sartu aurretik beheko komon txikian eskuak garbitzen dituzte.
- Mantala ekarri behar dute hurrek.
- Ikastolan geratzen direnak siesta egiten dute jangelako arduradunarekin (psiko gelan), besteak geletara igotzen dira irakaslearekin etxerako prestatzeko.
- Oinetakoak eta arropa kenduko dituzte lotarako (body-arekin) tenperaturaren baitan.
- Txupeteak, mantak erabiltzen dituzte lotarako, almohada...

Psikomotrizitate gela: Materiala jaso baina leihoak libre utzita.

Eguneroko irteerak

- Irakasle bat beti aurretik eta bestea atzetik joango da.
- Irten aurretik haurrak kontatu egingo dira, irteeran zehar ere zenbatu egingo dira. Ikastolara iristean ere berriro zenbatu egingo dira.

HH1-2-3:

Ikastolako sartu-irteerak

- Autobusez datozen ikasleek irakasleekin batera egingo dituzte ikastolako sartu irteera guztiak.
- Irakasleak autobusera joango dira ikasleak jasotzera. Irakasleen artean txandak egiten dituzte.
- Autobusak finkatzen du sarrera ordua; gurasoek kanpoan itxarongo dute.
- 12:30tan ate handia eta korredera irekiko dugu
- 14:30tan ate handia eta korredera irekiko dugu
- 16:30tan ate handia eta korredera irekiko dugu
- Autobusera sartzeko lehentasuna dute 3 urtekoek, gero 4 eta gero 5 urtekoek.
- Autobusera lehenengo 3 urtekoak sartuko dira, ondoren 4 eta 5koak azkenak.

- Haurrak ezin dute kanpo aldeko aldapako barandilan jolasean ibili.
- Bakarrik edo adin txikikoek lagunduta joaten diren haurrak gurasoen baimena ekarri beharko dute sinatuta.

Zirkulazio libreko arauak

- Musika jarriko da 8:45tan
- Lehenengo txanda gelara dator mailako irakasle batekin. Harrera mailaka egiten da, irakasle bat gelan eta bi gelak irekita. Bigarren txandako haurrak mailako beste irakasleak jasoko ditu autobusetik eta gelara igoko ditu.
- Musika amaitzen denean Zirkulazio librearen hasten da (9:15tan) eta haur bakoitza espazioz mugitu daiteke
- 3 urtekoen geletara hasieran (gelaren arabera erabakiko da noiz) ezin dute besteak sartu
- Musika hasten denean jasotzen hasi denen artean
- Ateratakoa beti jaso, beste gauza batean hasi aurretik.
- Etxeko oinetakoekin edo oinutsik ibili daitezke (komunera oinetakokin)

Erregistroa. Asistentzia taulak, sarrera orduan egingo da, eta gela horretako ikasleren bat beranduago etorritz gero, momentu horretan gelan dagoen irakasleak erregistratuko du. Hilaren amaieran, idazkaritzara pasatzen dira %20eko abstentzioa duten ikasleen izenak eta arrazoiak. Asistentzia taulari argazkia aterako diogu eta gure zerbitzarian gordeko dugu.

Patioko sartu-irteera

- Eskuineko atetik atera eta sartuko dira.
- Ikasleek irakasleekin batera ateratzen dira patiora, jangelako ondoko gunean itxaroten dute eta irakasleak ikasleak kontatuko ditu.

Patio zaintza

- Prestaketa orduren batekin edo ingeleseko orduaren ondoren koinziditzen badu patioa, haurrak ezin dira patioan bakarrik utzi, ziurtatu irakasleren bat dagoela bertan edo bestela itxaron.
- Irakasleek kurtso hasieran finkatzen dituzte zaintza guneak.
- Aterpean dagoenak sokak, pelotak eta uztailek aterako ditu
- Erdian dagoenak komonak errebisatuko ditu eta fregona pasako du hurrengoek txukun aurkitu dezaten.

Patioko arauak

- Frontoian ezin da futbolean ibili
- Porteriko sareetatik ezin da zintzilikatu
- Brakeazioko eskaileratan bi pertsona batera bakarrik ibil daitezke.
- Pixa komonean egin behar da.
- Komonean ezin da urarekin jolastu eta kanpoan neurrian

- Musikako altaboza aterako da (sarreran dagoenak)
- Euria egiten duenean ezin da baloia jaitsi
- Euria egiten duenean ikasleek ezin dute aterpetik atera.

Irakasle aldaketak

- Beste irakaslea etorri arte ezin da taldea bakarrik utzi
- [ARDUREN TAULA](#) (24-25)

Ikasleen garbitasuna

- Haurrak aldatzeko arropa bakoitzak bere saskian du eta irakasle gelan ere
- Zorriak, idatzia bidaltzen zaie gurasoei idazkaritzatik. Idazkaritzan abixatu
- Eskuen higieua mantendu

Jostailuak

- Ezin dira ekarri, ekartzen badituzte kanpoko saskietan gordetzeko eskatuko zaie (salbuespenak 3 urtekoak, trantsizio objektuak)

Urtebetzeak nola ospatu

- Bizkotxorik ez dute ekartzen. Gelaren erdian esertzen dira nahi izanez gero eta denen artean abestuko zaio (ahoz, gitarrarekin...). Abesti desberdinak aztertzen ari gara. Ez ditugu janariarekin ospatzen.
- Goxokirik ezin dute ekarri. Ekartzen badituzte etxera bidaliko dira bueltan.

Jangela:

- HH1 era 11:55tan siestako gela prestatzera igotzen da jangelako arduraduna eta 12tan jangelara jaisten ditu
- Mantala eta telazko zapia ekarri behar dute haurrek
- HH2-HH3 ra 12:20tan jangelako arduraduna gelara igotzen da bila
- HH1ekoak beraien gelara igotzen dira bazkal ondoren eta deskantsua eskaintzen zaie, siesta egiten dute. 14:30tan esnatu egiten zaie (egoera eta taldearen baitan).

Arauak

- orokorrak: (gehitu)
 - pasilo eta geletan ezin da korri egin
 - eskaileretatik ezin da saltorik egin
- gela bakoitzak bere arauak ditu: [taula](#)

LH 1-2-3

Ikastolako sartu-irteerak

- Ikastolara bizikletaz edo patinetean igotzea eta jaistea debekatua dute.
- Ping pong-eko atletik sartuko dira.
- Eguerdietan eta arratsaldeetan sarrera orokorretik aterako dira.
- Irakasleak txandaka arduratuko dira atea irikitzeaz.
- Ikasleak musika gela ondoko eskaileretatik igo eta jaitsiko dira.
- **Kaleko atea (grisa) ireki eta ixteaz, HHko irakasleak arduratzen dira.**

Irakasle -gela aldaketak

- Gelan sartzen den lehen irakasleak zerrenda pasatzeaz arduratu behar du.
- Garrantzitsua: Irakasle bat gelatik ateratzen denean hurrengo sartzeko da, puntuala izaten saiatu behar da ikasleak ez daitezen bakarrik egon geletan!!!
- Soinketa dutenean, irakaslea bera etortzen da ikasleen bila, eta kiroldegiko bidea berarekin egiten dute beti. LH 3ko ikasleak lehen orduan dutenean klase, kiroldegian bertan elkartzen dira irakaslearekin.
- Musika dutenean irakaslea joaten da beraien bila musika gelara joateko.
- Gela aldaketetan komunera joan nahi izan ezker, irakasleari galdetu behar zaio.
- Azken orduko irakasleak gela txukun utzi behar du: pertsiana itxita, argiak itzalduta...
- Geletako ateak irekita geratuko dira.
- **Irakasle gela 16:35tan itxi egin behar da eta pasiloko argiak itzalduta.**

Patioko sartu-irteerak

- Patiora pin-poneko atletik atera eta sartuko dira.
- Patio zaintza dagokien irakasleak arduratuko dira ikasleak geletara igotzeaz.
- Ikasleek errenkadan jarriko dira patiotik sartu baino lehen.

Patio antolaketa-zaintza.

- LH1-2-3ko patioetan, 3 irakasle arituko dira zaintzan.
- Hauek begiratzen egon behar dute, patioko zonalde guztiak zainduz. Sarrera nagusian ezin dute ikasleek egon, ezta komunetan ere.
- Irakasleak ateratzen diren lehenengo ikasleekin ateratzen saiatuko dira, inongo momentuan bakarrik ez egoteko ikasleak.
- Patioko materiala irakasle gelan gordeko da. Irakasleek hartu beharko dute. Ikasleek ezin dute sartu.
- Materialaren zaintza dagokion irakasleak eramango du.

- Baloien bat kanpora irteten bada, ikasleek irakasleei abisatu beharko die eta hauek begiratzten egon kanpora ateratzen direnean. Sarrera nagusia erabiliko da kanpora ateratzeko.
- Baloia goiko sasietara erortzen bada, baloi bila joateko, ikasleek irakasleei abisatu beharko die eta hauek begiratzten egon gora igotzen diren direnean.
- Ikasleek ezin dute barruan egon bakarrik, irakaslearekin badaude zer edozer bereziagatik izango da, ez jolasten geratzeko.
- Irakasleak irteera badu zaintza tokatzen zaion egunean, aldatu egin beharko du beste egun batengatik.

Patioko arauak

- Porterriko sareak ezin dira ukitu ezta hauetatik tira ere.
- Euria egiten duenean ezin da baloia jaitsi.
- Frontoian ezin dira porterriak erabili futbolearen edo eskubaloiean kantxa osoa hartuz jolasteko bada.
- Frontisean erabilerarako pelotak izango du lehentasuna.
- Brakeazioko eskaileratan bi pertsona batera bakarrik ibil daitezke.
- **Patio garbiketarako urtero antolatzen dira gelen artean, asteazkenean direlarik.**
- Komunetan ezin da egon.
- Patio zaintza tokatzen zaion irakasleak ateratzen du materiala.

Jangela:

- 12:30tan sartuko dira jangelara.
- **Bakoitzak bere oihalezko zapiak ekarri beharko du jangelarako.**
- Bezperan goizeko 10:00 baino lehen pasa behar da abisua bertan bazkaltzeko.
- Gailu elektronikoak (erlojuak) ezin dira erabili.
- Ezin da ikastolatik atera baimen orririk gabe.
- Jangelako arauak geletan irakurriko dira.
- **Jolastorduko arauak jangelako jolastorduko arauarekin kontrastatu.**

Jostailuak, mugikorrak, gailu elektronikoak...

- Ordulari adimentsuak ezingo dira eskola orduetan erabili. Saskian utzi beharko dituzte itzalita.
- Jostailuren bat ekartzen badute, beste guztiekin elkarbanatzeko izango da, denei utzi beharko diete. klasean gauden bitartean saskian utzi beharko dute.

Ikasleak gelatik kanporatzea

- Kanporatzea, azken aukera izan behar du, beti ere lasaitzeko helburuarekin. Ahalik eta azkarren gelaratuko dugularik.
- Irakaslea berarekin aterako da lasaitze prozesuan laguntzeko.

Gelako arauak

- Gelako arauak ikasleekin batera adosten dira kurtso hasieran.

- Ikasleekin adostutako gelako arauak eta arau hausteen ondorioak, gelako horman zintzilikatzen dira.

Ikastolako elkarbizitzako arautegia

- Lehen mailako gurasoei KiVa aurkezpena egiten zaie.
- Gatazka baten aurrean, uzturpe.eus-en irakaslean txokoan, bizikidetza atalean gatazkak erregistratu behar dira.
- KiVa dekalogoak gela guztietan ikusgai jarri behar da.

LH 4-5-6

Ikastolako sartu-irteerak

- Ikastolara bizikletaz edo patinetean igotzea eta jaistea: 5. mailatik gora kaskoa beharrezkoa da.
- Terrazako eskaileretatik egingo dituzte sartu irteera guztiak LH 4,5,6. mailakoek.
- Patio zaintza duten irakasleak arduratuko dira goizean eta arratsaldean eskaileretako ate beltza eta goiko sarrerako ate gorria irekitzeaz eta isteaz.
- Kanpoko atea (arranpakoa) irekita geratzen da. Atea ixtea bakoitzaren ardura da.
- Kanpoko atea ireki eta ixtearen ardurak ZTk antolatuko ditu.

Irakasle -gela aldaketak

- Gelan sartzen den lehen irakasleak zerrenda pasatzeaz arduratu behar du.
- Garrantzitsua: Irakasle bat gelatik ateratzen denean hurrengoak sartzen da, puntuala izaten saiatu behar da ikasleak ez daitezen bakarrik egon geletan!!!
- Soinketa dutenean, 10:00etan eta 15:30etan, ikasleak sarrerara bidali behar dira.
- Musika dutenean irakaslea joaten da beraien bila.
- Gela aldaketetan komunera joan nahi izan ezker, irakasleari galdetu behar zaio. Ez dugu galeraziko komunera joatea baina irakasleak neurria hartuko dio.
- Gela bakoitzean dagoen irakasleak ematen dio bukaera egunari (pertsianak, atek itxi...).
- Azken orduko irakasleak gela txukun utzi behar du: pertsiana itxita, argiak itzalduta...
- Irakasle gela azkenak itxi eta pasiluko argiak itzali.

Patioko sartu-irteerak

- Patiora sartu-irteerak terrazako eskaileratik irtengo dira.

- Patiotik bueltan ez zaie komunera joaten utziko, patio garaian egin beharko dute.
- Euria egiten duenean aterki ontziak kanpora aterako ditu patio zaintzako arduradunak.

Patio antolaketa-zaintza.

- LH4tik 6rako patio saioetan, **3 irakasle egon beharko dute** beti txanda bakoitzean.
- Hauek mugimenduan egongo dira patioko zonalde guztiak zainduz.
- Irakasleak ateratzen diren lehenengo ikasleekin batera atera behar du, ez daitezzen inongo momentuan bakarrik egon.
- Patioko material poltsa irakasle gelan egongo da eta dagokion irakasleek hartuko dute.
- Baloien bat kanpora irteten bada, ikasleek irakasleei abisatu beharko die eta hauek begiratzen egon kanpora ateratzen direnean.
- Baloia goiko sasietara erortzen bada, irakasleei abisatu beharko die ikasleek, eta hauek baloratu beharko dute hartzeko erraz dagoen ala ez edo nola kudeatu egoera.
- Ikasleek ezin dute barruan egon bakarrik, irakaslearekin badaude zer edozer bereziagatik izango da, ez jolasten geratzeko.
- Irakasleak irteera badu zaintza tokatzen zaion egunean, aldatu egin beharko du beste egun batekoagatik.

Patioko arauak

- Ikasleak patiora jaistea derrigorrezkoa izango da, ezin dute gelan geratu.
- Frontoian ezin da kantxa osoa hartuko duen kirolrik praktikatu, hala nola, futboleak, eskubaloiean... jolastu.
- Frontoian baloiari ostikoka ezin da ibili.
- Porterako sareak ezin dira ukitu ezta hauetatik tira ere.
- Euria egiten duenean ezin da baloia jaitsi.
- Kanpo txikiko txandak errespetatu.
- Frontisaren erabileran pelotak izango du lehentasuna.
- Brakeazioko eskaileratan bi pertsona batera bakarrik ibil daitezke.
- Edozein arau-hausteren ondorioz patioa garbitu beharko dute.
- Patio garbiketarako urtero antolatzen dira gelen artean.
- Komunetan ezin da egon.

Jangela:

- Jangelara sartu bitartean patioan ibiliko dira.
- **Bakoitzak bere oihalezko zapia ekarri beharko du jangelarako.**
- Bezperan goizeko 10:00 baino lehen pasa behar da abisua bertan bazkaltzeko.
- Mugikorra ezin da erabili.
- Ezin da ikastolatik atera baimen orririk gabe.
- Jangelako arauak geletan irakurriko dira.

Ikasleak gelatik kanporatzea

- Kanporatzea, azken aukera izan behar du, beti ere lasaitzeko helburuarekin. Ahalik eta azkarren gelaratuko dugularik.
- Irakaslea berarekin aterako da lasaitze prozesuan laguntzeko.

Gelako arauak

- Gelako arauak ikasleekin batera adosten dira kurtso hasieran.
- Ikasleekin adostutako gelako arauak eta arau hausteen ondorioak gelako horman jarriko dira.

Ikastolako elkarbizitzako arautegia

- Uzturpe.eus-en “irakasleen txokoan”, bizikidetza atalean, gatazkak erregistratu behar dira.
- KiVa dekalogoak gela guztietan ikusgai jarri behar da.

Jostailuak Mugikorrak, gailu elektronikoak...

- Mugikorrak eta smartwachak ikastolan ez (langileontzat ere errebisatu beharko da).
- Irteeretara ere ezingo da mugikorra eraman.
- Klase garaian ordenagailuarekin beste zereginen batean dabilenari jakinarazpena bidaliko zaio.
- Jostailuren bat ekartzen badute, beste guztiekin elkarbanatzeko izango da, denei utzi beharko diete, eta ikaslearen ardura pean egongo da.

DBH

Ikastolako sartu-irteerak

- Ikastolara bizikletaz edo patinetean igo eta jaitsi daitezke. Ikastolaz kanpoko ordutegian egiten denez, ezin dezakegu arautu jarduera hau baina bai zenbait gomendio eman: bizikletan banaka jaitsi behar dira, abiadura kontrolatu dezatela, segurtasun materiala erabili dezatela (kaskoa...)
- Sartu irteerak:
 - DBH1 eta 2: Sarrera Nagusia
 - DBH 3 eta 4: Eskailera berria
- Berandu datorren ikasleari jakinarazpena jarriko zaio Alexian. Askotan errepikatzen bada, familiei jakinaraziko zaie.

Irakasle –gela aldaketak

- Irakasle aldaketa dagoenean, hurrengo klasea gela berdinean bada ikasleak ez dira kanpora ateratzen, gelan itxaroten dute.
- Ikasleak ezin dira komunera joan klase tartean baimenik gabe. Ezta patiotik bueltan ere.
- Hilekoa duen ikasleak baimena izango du irakasleen komuna erabiltzeko.
- Kiroldegira jaisteko: irakaslearekin jaisten dira. Goizeko eta arratsaldeko lehen orduan gorputz hezkuntzako klasea tokatzen bada bakarrik doaz, han geratzen dira.
- Gela aldaketak barruko eskaileretatik egin daitezke.
- Azken irakaslea arduratuko da ardurak bete direla ziurtatzeaz.
- Azken orduan gelak aireztatzeko leihoak **abatituta** eta pertsianak jaitsita utziko dira. Maratila irakasleak erabiliko du.
- Azken orduan pasilloko atea itxita (giltzatuta) geratuko da.

Patioko sartu-irteerak

- DBH osoa eskailera berritik.

Patio garaia

- Ikasleak patioan ezin dira gelan geratu. Salbuespen bezala, gelan geratu nahi badute, honako prozedura hau jarraituko dute: gutxienez egun bat lehenago jakinaraziko diote arloko irakasleari edo/eta tutoreari.
- Ikasleak ezin dira Ikastola barruan nahiz komunean egon.

Patio zaintza

- Hiru irakasle jaitsiko dira patio bakoitzean.
 - Irakasle horietako batek geletako atea patioa amaitu aurretik irekiko ditu.
 - Irakasle batek komunak irekiko ditu. Eta jolasgaraia amaitzean bertan egongo da erabilera egokia bermatu eta dena txukun geratzeko.
- Irakasleek patio osoa kontrolatu behar dute, paseatu etab.
- Ikasleek patio garaian ezin dute komunean egon eta bertako atea irekita egongo da
- **Patio garbiketak** urtero antolatzen dira gelen artean, astelehenetan egingo da garbiketa, jolas orduaren ondoren.
- Denon eskubide eta betebeharra da espazioak garbi mantentzea

Patioko arauak: gune desberdinak

- Erabili beharreko komunak jolastokikoak izango dira.
- Futbolean ibiltzeko gunean **txandak** zehaztuko dira.
- Euria egiten duenean baloia jaitsi dezakete parkeko saskitan ibiltzeko, beti ere LHko ikasleekin bat egin bitartean.

- Egi baserriko baratzaren ondoan, ezingo da baloiarekin jolastu. Beste eremuetan paseka ibili daiteke, beti ere modu lasaiean.
- Frontoiko espazioa denen artean banatu beharko da, eskupilota lehenetsiz.
- Frontoian baloiari ostikoka ezin da ibili.
- Ezin da ikastola atariko barandilatik ez eta larrialdi irteera pareko barandilatik salto egin.
- Patioan etxerako lanak ezin dira egin.
- Indarkeria inplikatzeko duen edozein jardura ez da onartuko.

Materiala patioan

- Ateko sareak ezin dira ukitu ezta hauetatik tira ere.
- Brakeazioko eskaileratan bi pertsona batera bakarrik ibil daitezke.
- Futbolean soilik "futbol zelai txikian" jokatu daiteke.
- Baloia gora joaten bada, irakaslea abisatu behar dute. Baimena ematen bazaie baloiaren bila joateko, ate nagusitik aterako dira. Irakaslea zaintzen egongo da eta arriskua ikusten badu bueltatzeko esango die.
- Baloi bila ezin da beste geletara joan.
- Kendutako baloiak, kontrol orri baten bitartez erregistratuko dira.
- Materialaren (erosketa?) erabilera desegokia egiten bada, galdu, puskatu edo puskatzeko arriskuan jarritz, **materiala aste batez kenduko zaie eta ezingo dute denbora horretan jardura berdinean jolastu.**
- **Erabilera desegokiagatik aste batez materiala erabiltzeko aukera galdu duen taldeak jokabidea errepikatzen badu, irakasle taldeak adostuko du noiz itzuli eta zein ondorio hartu.**

Jangela

- Ikasleak dagokien orduan joango dira jangelara.
- Ikastorduetatik kanpo ikasgelak itxita egongo dira.
- Bakoitzak bere oihalezko zapia ekarri behar du jangelarako.
- Bezperan goizeko 10:00ak baino lehen pasa behar da abisua bertan bazkaltzeko.
- Mugikorra ezin da erabili.
- Jangelako arauak geletan irakurriko dira.
- Bikoizketa gela erabiltzeko kontratua sinatu behar du ikasleak.

Mugikorrak, gailu elektronikoak...

- Ikastolak ez du mugikorra ekartzea gomendatzen. Ikasleak mugikorra ekarriko balu, ez da ikastolaren ardura.
- Mugikorra ekartzekotan ikastolara sartzean itzalita eduki behar dituzte eta gelara sartzean takilan gorde. Ezingo da soinean eraman.
- Aurreko araua betetzen ez bada edo norbaiti mobilak jo edo bertatik hizketan entzuten bada, abisatu egingo zaio.
- Bigarren abisuan edo erabilera desegokiagatik, mugikorra aste batez kenduko zaio. Denbora tarte horretan, gurasoak bila etorri daitezke.

- Azterketa batean, ezingo da mugikorra eta smartwatch-a soinean eraman. Eramango balute, azterketa kenduko zaio.
- Irteeretan ezingo da mugikorra erabili. Frantses elkartrukea salbuespena izango da.
- Klase garaian ordenagailuarekin beste zereginen batean dabilenari jakinarazpena bidaliko zaio. Jokabidea errepikatzen bada, ordenagailuaren erabilera mugatuko zaio, paperean lana egitea lehenetsiz.
- Ordenagailua konponketan badu ikasleak, beste bat utziko zaio ikaszaintzatik. Ahaztu edo bateria gabe badago, ez du aukera hau izango. Bere kasa moldatuko da.
- Konponketa hauetarako ahal den heinean asteazkenetan 8:00-12:30.

Ikasleak gelatik kanporatzea

- Kanporatutako ikasleak, ikaszaintzan egon beharko du lanean.
- 3 aldiz kanporatuz gero, astearte arratsalde batean etorri beharko du ikastolara. (Hilabetero, etapan, erregistro bat emango da. [Hemen](#) ikasleari eman eta familiak sinatzeko dokumentua)

Gelako arauak

- Gelako arauak eta ondorioak ikasleekin batera adosten dira kurtso hasieran.
- Ikasleen eskubide eta betebeharren dokumentua ikasleekin aztertuko da kurtso hasieran.
- Aulkiak mahai gainera igo egunero.
- Bakoitzak bere tokia eta ingurua txukun utzi beharko du.
- Asteko arduradunek zenbait betebeharrak izango dituzte:
 - Zaborrak atera (ostiraleko azken saioaren hasieran)
 - Erratza pasa (egunero)
- Leihoak irakasleek soilik irekiko dituzte.
- Gelatik ateratzean argiak itzaliko dira.

Ikastolako elkarbizitzako arautegia

- Ikasleen eskubide eta betebeharrak kurtso hasieran errepasatzen dira.
- Uzturpe.eus-en “langileen txokoan”, bizikidetza atalean, gatazkak erregistratu behar dira.

Hutsegiteen justifikazioa

- Gurasoek, lehenbailehen jakinaraziko dute idatziz, beraien seme-alaben hutsegitea eta arrazoiak.

Jarduera ebaluagarri/Konpetentziak

- Konpetentzien kasuan kopia emango da. Jarduera ebaluagarrien kasuan, aldiz, aurrez-aurreko berrikuspena lehenetsiko da.
- Guraso edo tutoreek justifikatutako arrazoiengatik azterketa galdu duenak etorri eta hurrengo saioan egingo du.

- Epe luzean gaixo egon denaren kasuan irakasle taldeak beharren arabera erabakia hartuko du.
- Justifikatu gabeko arrazoiengatik azterketa galtzen duenak zuzenean berreskurapenean egingo du.
- Azterketa/jarduera ebaluagarri bat ikasteko etxean geratzea ez da justifikagarria.

Proiektuen astea

- Proiektu asteak araudi propioa izango du eta ikasleekin tutoretzan errepasatuko da